

ZINPEKO AITORPENA ETA BAIMENA EMATEA			
Gizarte Zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten elkarteentzat dirulaguntzak emateko deialdia. 2022			
GKEaren izena		IFK	
Ordezkestaren izen-abizenak		NAN	
Elkartean duen kargua			

ADIERAZTEN DUT:

Nire erantzukizunpean AITORTZEN DUT, ordezkatzen dudana elkarteak

1. Elkarte / erakunde hau ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako egoera horietakoren batean ez dagoela.
2. Elkarte / erakunde honetako kideek ez dutela administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapen penalik ezarrita eta indarrean sexu-delituengatik (26/2015 Lege Organikoa, uztailaren 28koa).
3. Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen dituela.
4. Ordezkatzen duen elkarteak edo erakundeak berdintasunaren printzipioa betetzen duela eta ez duela egiten sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik kideak aukeratzeko prozesuan, funtzionamenduan, ibilbidean, jardueran, antolaketa edo estatutuetan.
5. Elkarte / erakunde honek ez duela administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenik ezarrita eta indarrean, berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik.
6. Elkarte / erakunde honek bere dokumentazio eta jarduera guztietan hizkuntza eta irudi EZ-sexista eta barneratzaileak erabiltzen dituela.



LEGEZKO OHARTARAZPENA

Abenduaren 5eko Datu Pertsonalan Babesteko eta eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz, jakinarazten dizugu formulario hau bete eta Zarauzko Udalari emandako dokumentazioarekin gure esku uzten dituzun datu pertsonalak, Zarauzko Udalaren jabetzako fitxategi automatizatuan sartuko direla eta zure eskaera edo espedientea izapidetzeko beharrezkoak diren prozedura administratiboetan bakarrik erabiliko direla.

Era berean, baimena ematen duzu Udalak zure datu pertsonalak gordetzeko, Zarauzko Udalarekin lotutako eta zure interesekoak izan daitezkeen jardueren berri emateko (ohiko komunikabideen edo bide elektronikoen bitartez). Informazio hori jaso nahi ez baduzu markatu hurrengo laukitxoak:

BAI EZ

Eskaera honen bitartez interesdunak aitortzen du emandako datu guztiak egiazkoak, zehatzak, osatuak eta gaurkotuak direla. Datu horietan edozein aldaketa izanez gero, bere erantzukizuna da horiek Udalari jakinaraztea.

Zuk une oro erabil ditzakezu sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko zure eskubideak. Horretarako zure eskabidearekin batera NANen fotokopia edo dokumentu identifikatzaile baliokidea bidali behar duzu helbide honetara:

ZARAUZKO UDALA-GIZARTE ZERBITZUEN SAILA. Zigordia kalea, 33; 20800 ZARAUTZ. Tel. 943-005111 Fax. 943-005455 Posta elektronikoa: ongizatea@zarautz.eus

Formulario hau bete duen pertsonaz gain beste pertsona fisiko baten datu pertsonalak sartzan badituzu, hauek sartu baino lehen, aurreko paragrafoetan adierazitako informazioa eman beharko diozu.

Zarautz, 2022ko.....aren..an

Eskatzailea

Sin.

Zarauzko Udalak datuak tratatzen ditu herritarrek egindako eskabideei buruzko espedienteak kudeatzeko; eta hori, hauen arabera: apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen; eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Arloan eskumenak dituzten beste Administrazio Publiko batzuei komunikatu ahalko zaizkie datu pertsonalak. Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta horien tratamendua mugatu edo horren aurka egiteko. Horretarako, komunikazio bat bidaliko du Udalaren helbidera edo dbo-dpd@zarautz.eus helbide elektronikora; Datuak Babesteko Politikari buruzko informazioa zabal dezake www.zarautz.eus helbidean.